

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
Ikerketa Metodoak eta Teknikak	151305	2024-2025
Titulazioa	Maila	Seihilekoa
Haur Hezkuntzako Gradua	1	2
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
Oinarrizko prestakuntza	6	Euskara
Irakaslea		
Maite Garcia Ruiz (mgarcia@bam.edu.es)		

Justifikazioa

Gaur egungo irakasleok, hezkuntzaren prozesua hobeto ulertzeko, hezkuntzaren testuinguruak aztertzekeo tresna ezberdinak ezagutu behar ditugu, datu esanguratsuak bilatzeko eta interpretatzeko.

Ikasgai honen bidez, ikasleek testuinguruaren arabera ikerketa tresna egokiak aukeratzen eta datuen artean esanguratsuenak bilatzen ikasiko dute. Horrez gain, datuen arabera erabaki egokiak proposatzen ikasiko dute.

Aurrebaldintzak

Ez dago.

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak (GO):

- Talde lana, 1.maila:**

Taldeko zereginetan aktiboki parte-hartzea eta konfiantza, zintzotasuna eta elkarlana sustatzea.

Berariazko gaitasunak (BG):

- BG1:** Gizarte Zientzietako eta bereziki, Hezkuntza ikerketako metodoak ulertzea.
- BG2:** Metodo koantitatiboak eta koalitativoak ezagutzea eta erabiltzea.
- BG3:** Ikerketa txostenak ulertzea eta gauzatzen jakitea.



Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Laudato si' Helburuen presentzia ikasgaiak*

Hezkuntza funtsezkoa da gizartearen garapenerako eta kalitatezko hezkuntza metodologia berriak ikertuz eta garatuz lortzen da. Horregatik, irakasgai honek honako GJHak zeharka ukituko ditu:



4. GJH. Kalitatezko hezkuntza: Kalitatezko hezkuntza inklusibo eta bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzako aukerak bultzatzea guztientzat

Ikaskuntza-helburu kognitiboak:

1. Ikasleak ulertzen du hezkuntzak eta etengabeko ikaskuntzak guztioi eskaintzen dizkiguten aukeren garrantzia, garapen iraunkorrerako sustatzaile den neurrian nahiz pertsonen bizimodua hobetzeko.
5. Ikasleak ulertzen du hezkuntzak mundu iraunkorrako, zuzenago eta baketsuagoa sortzen lagun dezakeela.

Ikaskuntza-helburu sozioemozionalak:

1. Ikaslea gai da guztiontzako kalitatezko hezkuntzaren garrantziari buruz kontzientziatzeko.
3. Ikaslea gai da hezkuntzaren berezko balioaz jabetzeko eta bere garapenerako dituen hezkuntza-beharrak aztertu eta identifikatzeko.

Jokabideen eremuko ikaskuntza-helburuak:

1. Ikaslea gai da guztiok kalitatezko hezkuntza izan dezagun laguntzeko.

Era berean, irakasgai honek honako LSH zeharka ukituko du:



6. LSH. Hezkuntza ekologikoa.

Eskola-hezkuntza onak bizitza osoan zehar eragina izan dezaketen haziak jartzen ditu.

Edukiak*

1. Ikerketa prozesua
2. Ikerketa testuinguruan kokatzen
3. Ikerketaren diseinua
4. Datuen analisisa
5. Ikerketa txostena

Ikas-irakaskuntza estrategiak*

Ikasgai honetan landuko diren kompetentziak honako jarduerak hauen bitartez jorratuko dira.

- Ikaslea *testuinguruan kokatzen laguntzeko jarduerak*. Gelako eztabaiden bitartez, testu ezberdinen azterketen bitartez edo azaleratuko diren bestelako esperientzia esanguratsuen bitartez, ikasleak gaian kokatuko dira
- *Hausnarketarako jarduerak*. Jarduera hauek ikerlana aukeratzen laguntzeko, helburuak eta hauekin lotutako hipotesiak formulatzen laguntzeko, iturri bibliografiko egokiak aukeratzeko eta metodologia diseinu egokia aukeratzeko egingo dira.
- *Kontzeptualizaziorako jarduerak*. Irakurgai ezberdinen bitartez, gelako eztabaidaren bitartez eta irakaslearen azalpenen bitartez, ikaslea ikerketaren inguruko oinarri teorikoak eraikitzen joango da.
- *Esperimentazio aktiboa*. Ikasgai hau praktikoa da eta gelan landutako kontzeptuak ikerketa proposamen bat osatzeko erabiliko dira, bakarkako zein taldekako jardueretan.
- *Ebaluazio-jarduerak*. Ikerketa proposamena ahoz eta idatziz aurkeztu beharko da eta irakasleak ebaluatuko du. Ikasleek beren lana eta ikaskideen talde-lana ebaluatuko dute.

Ebaluazioa*

Ikasgaia gainditzeko ezinbestekoa da ebaluaketa item guzti hauek gainditzea:

1. **Jarduerak (%20)**
 2. **Ikerketa proiektua (IP) (%80)**
 3. ****Ikasleek maila indibidualean ikasi dutena ebaluatzeko aukera egon daiteke azterketa edo azterketen bitartez. Azterketa(k) egotekotan, item bakoitzaren pisua egokituko litzateke.**
- **Hizkuntza maila:** Gainditzeko, ezinbestekoa izango da hizkuntza-maila egokia izatea. **Zuzentasun ortografiko eta gramatikala erakusten ez duten lanak ez dira irakurriko eta zuzenean joango dira hurrengo deialdira.**
 - **Plagioa:** Lanean zehar **plagiorik antzeman ez gero**, lanak ez du bestelako feedbackik jasoko eta **taldeak zuzenean joan beharko du ez-ohiko deialdira.**
 - **Ez-ohiko deialdia ez gainditzea:** Ikasturte batetik bestera ez da kalifikaziorik gordeko; ikasleek berriz egin beharko dute irakasgaia osorik ikasturte berri programan agertzen diren irizpideak betetz.

Adimen artifizialaren erabilera:

Adimen artifizialeko tresnak edo horien bidez sortutako edukien erabilera ikasgaiko zeregin eta lanen orientabide espezifikoetan arautuko da. Zer tresna eta nola erabil daitezkeen adierazten ez den bitartean, ez dago baimenduta horiek erabiltzea.

Dokumentazioa*

- Albert, M.J. (2007). *La investigación educativa. Claves teóricas*. McGraw-Hill/ Interamericana de España.
- American Psychological Association. (2020). *Publication manual of the American Psychological Association* (7. ed.). <https://doi.org/10.1037/0000165-000>
- Hernández, R., Méndez, S., Mendoza, C.P. eta Cuevas, A.. (2017). *Fundamentos de investigación*. McGraw-Hill.
- Juaristi, P. (2003). *Gizarte Ikerketarako Teknikak: Teoria eta adibideak*. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen zerbitzua. <https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pdf/USWEB035407.pdf>
- McMillan, J.H. eta Schumacher, S. (2005). *Investigación Educativa. 5ª edición. Una introducción conceptual*. Pearson Educación.

Hausnarketan laguntzeko erabiliko diren bestelako artikulak ALUDen bitartez egongo dira eskura.

*Programaren atal batzuetan aldaketak egon daitezke ikasgaiarekin hasi aurretik. Betiere, aldaketa horiek ikasleen eta irakaslearen beharretara egokituta egongo dira ikasgaiaren edukiak eta ikaste prozesua hobetzeko helburuarekin.